

EUSKAL LEXIKO ETNOMETEOROLOGIKOAREN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Kepa Dieguez Barahona

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Tesi-zuzendaria: Gotzon Aurrekoetxea eta Mikel Martinez Areta

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi hau etnolinguistika edo hizkuntzalaritza antropologikoaren esparrukoa da, eta lexiko meteorologikoaren herri-lexikoa du aztergai. Inork nekez irudika lezakeen ezin konta ahala eguraldi-egoerari heltzen dio euskal hiztunen lexiko harrigarriak, hainbat ñabardura eta xehetasun atzemangaitz tarteko. Barreiatu samartuta egon diren termino gehientsuenak bildu, sailkatu, aditzera eman, interpretatu eta ondorioak azaleratzen dira tesi honetan. Honako hauen terminoak dira aztergai: ostadarra, ekaitza, haizeak, hodeiak eta ur-meteoroak —elurra, euria, hezetasuna, ihintza, izotza, lainoa-lanbroa-gandua eta txingorra—.

Hainbat iturri erabili dira corpusa osatzeko, ahozkoak nahiz idatziak. XIX. mendetik hona plazaratu izan diren askotariko iritzi eta hipotesiak azaltzen dira tesiaren esparru teorikoan. Asko osagarriak, beste batzuk, ordea, eztabaidagarriak oso; adibidez, Sapirren eta Whorfen hipotesi determinista: zer ote da lehenago, pentsamendua ala hizkuntza? Nolako harremana dago hizkuntzaren, pentsamenduaren eta errealtatearen artean? Zeinek zeini eragiten dio lehenago? Kezka eta hipotesi horiek islatzen dira tesian, nondik-norakotasuna adieraztekoan. Oro har, antropologiaz eta beste jakintza batzuek baliatzen da etnolinguistikaren ildo berria ondorio linguistikoak ateratzeko: lexikoa sailkatu eta aztertzeko azterbide bat eskaintzen da, kulturak lexikoari nola eragiten dion antzemateko. Eremitan, hain zuzen ere, ezartzen da tesi hau: kulturak hizkuntzari, eta, batik bat, lexikoari nola eragiten dion azterzea.

Lexikoaren sorkuntza dela-eta, Palmerri (1996/2000) hartutako kontzeptu bat ardaztat jo da tesi guztian barrena: *mind's eye*. Kontzeptu hori adierazteko, *adimen-begia* itzulpenaz baliatzea erabaki da, euskal hiztunen adimen-begia lexikoaren sortzailea baita buru-iruditeriaren bitartez, alegia.

Behin ikerlan honen esparru teorikoa zedarriturik, hizkuntzak irakasteko metodologiatik datorren sailkapen-metodo batez baliatu da: syllabus nozionala, nozio orokorrak eta nozio espezifikokoak bereizten dituen (Wilkins, 1976). Nozio orokorrak sei dira: izakiak, kantitatea, kalitatea, jarduera, denbora eta espazioa.

Nozio espezifiko guztiak kokatu eta sailkaturik, azterbide etnolinguistiko batez baliatu da; kulturak eta lexikoak bat egiten duten gune ezin zirrarragarriago horretan, hizkuntzalaritzaren, antropologiaren, dialektologiaren eta meteorologiaren ekarpenak aintzakotzat hartu dira ikerketa sakon eta xehe-xehea gauzatu eta hezurmamitzeko. Termino oro errotik azalera aztertzen da haren testuinguruan, eta horrela gauza izango gara jabetzeko noraino den nozio bakoitza espezifikoa bere eremuan, eta noraino gainerako eremuetako terminoekiko.